

URDUÑA AURRERA DOA BERE BIZI-KALITATEA INDARTU, AUKERAK ERAKARRI ETA ETORKIZUNA ERAIKI NAHI DUTEN PROIEKTU ESTRATEGIKOETAN

Herritarren parte-hartzeak, etxebizitzak, gazteriak, jasangarritasunak, lehen sektorearen indartzeak edo hiriaren kanpo-proiektzioak markatu dituzte legealdiko lehen hiru urteak; udalerrirako proiektu estrategikoak bultzatu diren bitartean, bereziki udal-igerilekuen birgaitzea

Urduña, 2026ko uztailaren 15ean. Hiru urteko gobernu-aldiaren ondoren, Urduñako Udalak tinko jarraitzen du bere helburu nagusiarekin: herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten proiektu estrategikoak garatzea. Hala, hiriaren erronka nagusiei erantzuteko asmoz, gobernu-taldeak hainbat arlotan egin du aurrera; hala nola, herritarren parte-hartzean, etxebizitzan, gazterian, jasangarritasunean, sustapen ekonomikoan eta espazio publikoen hobekuntzan. Horrekin batera, udalerrirarentzat estrategikoak diren proiektuak bultzatu ditu, udal igerilekuen birgaitze-proiektua kasu.

“Parte-hartzea eta hurbiltasuna funtsezkoak izan dira hiru urte hauetan. Herritarrei entzuteari esker, lehentasunak identifikatu eta udalerriraren benetako beharrei erantzuten dieten proiektu zein ekimenetan aurrera egin dugu”, adierazi du Iker Santocildes Urduñako alkateak. Izan ere, herritarren parte-hartzea izan da, hain zuzen, legealdi honetako lan-ardatzetako bat. Aurrekontu parte-hartzaileen kanpainak 315 ekarpen jaso zituen eta, entzute aktibo horren ondorioz, gaur egun errealitate dira informazio-panela, komun publikoa, hiria Galdakaoko Ospitalearekin lotzen duen autobus-linea, hiriguneko trafikoaren berrantolaketa edota astearte arratsaldeetako herritarrentzako hitzorduak, besteak beste. “Horrez gain, hormapikoetako muralak osatu ditugu, eta mugikortasuna zein hiri-irisingarritasuna hobetu. Izan ere, kamerak instalatzeari esker, ibilgailuen joan-etorria % 50 inguru murriztu da hirigunean”, zehaztu du alkateak.

Etxebizitza eta gazteria ere agintaldi honetako lan-ardatz nagusiak izan dira. Hain zuzen ere, gazteen emantzipazioa bultzatzeko asmoz, Udalak hainbat ekimen abiarazi ditu etxebizitza eskuratzen laguntzeko; esaterako, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako 250.000 euroko hitzarmena. Horrez gain, gaur egun etxebizitza hutsen errolda egiteko lanak ere abian dira.

Urduña, kanpora begira

Hiria ikus-entzunezkoen sektorean erreferente bihurtzea izan da gobernu-taldeak legealdiz honetan finkatutako beste helburuetako bat. Hain zuzen ere, Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarlanean jardun dute hiria sektore horrentzako gune erakargarri gisa kokatzeko. *“Lankidetzara horri esker, Mariaren Konpainiaren ikastetxe zaharra Bilbao Bizkaia Ikus-entzunezkoen Hubaren bi egoitza fisikoetako bat da jada. Horrez gain, gure hiria Casa Mundo Cero proiektuaren kokaleku ere bihurtu da berriki; ikus-entzunezkoen prestakuntzara, sorkuntzara eta postproduktzioa bideratutako eta Euskadiko erreferente izateko bokazioa duen gune berria”,* azpimarratu du Santocildesek.

Urduñaren izena bere mugetatik haratago proiektatzeko apustua Buenos Airesekiko konexioa berreskuratzearekin batera gauzatu da Juan de Garay Fundazioaren bitartez, eta horri esker bi lurraldeen arteko lotura historikoak sendotu dira. Era berean, Itzuliak hiritik irteteak eta Mendi Lasterketa, Citycross edo Orbea Gravel bezalako kirol-probak finkatzeak udalerriaren kanpo-proiektzioa ere indartzen lagundu dute.

Lehen sektorearekiko eta lurraldearekiko apustua

Tokiko ekonomiaren garapena ere gobernu-taldearen lehentasunetako bat izan da. Arlo horretan, mugarri nagusietako bat haragi-eraldaketarako zentroaren inaugurazioa izan da; Urduñak lehen sektorearen eta tokiko ekoizpenaren alde egindako apustu historikoa indartzen duen azpiegitura. Era berean, Udalak udalerriko produktuak Euskadin eta Euskaditik kanpo sustatzeko ekintzak bultzatu ditu, eta Urduña Bizi elkartearen sorreran ere inplikatu da; tokiko merkataritza indartu eta dinamizatu nahi duen hiriko merkatarien elkarte berria.

“El Bus de la Vida filmaren estreinaldiak aukera ere eman digu Urduñako Zaporeak tokiko elkartearen izena eta produktuak gure udalerritik kanpo zabaltzeko, eta hainbat foro espezializatutan parte hartzeak, berriz, gure esperientzia partekatzeko eta elikadura jasangarrian erreferentziazko lurralde gisa posizionatzen jarraitzeko balio izan digu”, adierazi du alkateak.

Lurraldearen kudeaketa legealdi honetan bultzatu den beste lan-ildoetako bat izan da. Horren erakusgarri da Urduñako historiako lehen Bide Publikoen Inbentarioa, hemendik aurrera hiriko landa-eremuko bide-sareko 128 kilometro baino gehiago identifikatzea eta katalogatzea ahalbidetuko duen dokumentu teknikoa. Era berean, Udalak lanean jarraitzen du etorkizuneko Emakumeen Etxea garatzeko, laster guneko fisiko bat egokituko zaion ekimena.

Energia-eredu eraginkorrago baterantz

Jasangarritasunak ere paper nabarmena izan du urte hauetan. Udal-ekipamendu desberdinetan eguzki-plakak instalatzea, hala nola Arbieto futbol-zelaian edo Eskola Publikoaren estalkian, eta Orduener tokiko energia-kooperatibarekin lankidetzan aritzea, energia-eredu eraginkorrago baterantz aurrera egiteko udal-estrategiaren parte dira. Era berean, gobernu-taldeak babesleku klimatiko berriak eta parke eta espazio publikoetan itzalgune berriak jarri ditu hirian, herritarren erosotasuna hobetzeko.

“Hiru urte hauetan herritarren benetako beharrei erantzuteko lan egin dugu, baina baita Urduñaren etorkizunerako garrantzitsuak izango diren proiektuen oinarriak ezartzeko ere. Horietako batzuk errealitate dira dagoeneko, eta beste batzuk aurrera doaz, hala nola udal-igerilekuak birgaitzeko proiektua, etorkizuneko Emakumeen Etxea, gure auzoetan bideak eta azpiegiturak hobetzeko aurreikusitako jarduerak edo familien gozamenerako pentsatutako

espazioak berritzea eta handitzea. Hurbiltasun, erantzukizun eta ilusio berarekin jarraituko dugu lanean, horiek guztiak hiriarentzat errealitate berri bihur daitezen”, amaitu du Iker Santocildes Urduñako alkateak.

Informazio gehiago:

Cristina Diaz. BLOK Comunicación. crisrina@biokcomunicacion.com | 608 39 60 89